

FAOren txostena: klima-aldaketa, nekazaritza eta elikagaien segurtasuna

Aurreikusten da 2050ean elikagaien eskariak gutxienez % 60 egingo duela gora munduan.

Eskari horri eta klima-aldaketaren mehatxuari aurre egiteko, elikagaiak ekoizteko sistemak erabat aldatu behar dira mundu osoan. Horixe da, hain zuzen ere, FAOren “*El estado mundial de la agricultura y la alimentación 2016*” txostenaren ondorio nagusia.

Txostenean, klima-aldaketak etorkizunean 5 kontinenteetan izango dituen eraginak zehazten dira. Honako hauek dira Europakoak:

ABELTZAINNTZA

- Temperatura altuek eta hezetasunak areagotu egingo dute abereak hiltzeko arriskua.
- Klimak eraginda, gari-ekoizpenaren aldakortasuna handiagoa izango da Hego eta Erdialdeko Europan.
- Neurritxo tenperatura-igoera, nahiz eta hasiera batean onuragarria izan erdiko latitudeko herrialdeetan, negatiboa izango da tenperaturak arian-arian gora egiten duen neurrian

ARRANTZA


- Berotzeak lekuz mugiaraziko ditu arrain-populazioak iparralderantz edo ur sakonetarantz.
- Itsas mailaren igoerak, azidifikazioak eta tenperatura-igoerak eragina izango dute akuikulturaren.
- Espezie tropikalek itsasertzeko ekosistemak eraldatuko dituzte Hego Europako itsaso erdi-itxietan.

BASOGINTZA

- Baso-suteen intzidentzia handiak nabarmen areagotuko du berotegi efektuko gasen isurketa.
- Ipar Europan eta Europa Atlantikoan, tenperatura eta atmosferako CO2ren maila igotzearen ondorioz, basoak gehiago haziko dira eta zur gehiago ekoiztuko da.
- Zuhaitzek poliki-poliki zuhaitzak ordeztuko dituzte Hego Europan.

Munduan, elikagai-horniduraren eskariak elikagaien prezioak igoaraziko ditu, baita klimaren aldakortasunak ere. FAOk hainbat proposamen egin ditu etorkizun horri aurre egiteko:

- **Jarduerak eta uztak dibertsifikatzea** (dibertsifikatzeko modu bat da uzten ekoizpena, abereak eta zuhaitzak uztartzea).
- **Beste jardunbide batzuk hartzea**, besteak beste: nitrogeno ugariko eta beroa ondo jasaten duten uzta-bariatateak erabiltzea, zero laborantza lantzea eta lurzoruaren emankortasuna oso-osorik kudeatzea.
- **Nekazari txikiei babesa ematea**, arriskuak kudeatzeko duten gaitasuna sendotzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia eraginkorrak gauzatzeko.
- **Abeltzaintzan praktika iraunkorrak modu orokorrean hartzea** abereen metano-isuria % 41 murriztuko luke eta ekoizpena handiagotuko luke, eta abereen elikadura eta osasuna hobetuko litzateke horrela.
- **Alferrik galtzen den elikagaien kopurua murrizteak**, elikagai-sistemaren eraginkortasuna hobetzeaz gain, txikiagotu egingo lituzke baliabide naturalekiko presioa eta berotegi-efektuko gasen isuria. Munduan ekoizten diren elikagaien herenak, gutxi gorabehera, alferrik galtzen dira bilketaren ostean.
- **Kontsumitzaileak ingurumenaren arloan sentsibilizatzea.**
- **Prezio-pizgarriak ematea** askoz ere aztarna ekologiko txikiagoa duten elikagaiei.
- **Inbertsioak finantzatzeko politika, erakunde-esparru eta mekanismo egokiak ezartzea**, sektorea eraldatzen laguntzeko. Isuriak murrizten dituzten eta baliabide naturalak zaintzen dituzten praktikak babesteko baldintzak jartzea modu bat da nekazaritzaren garapena eta klimarekin zerikusia duten helburuak bateratzeko.
- **Eskualdeko eta nazioarteko lankidetzak sendotzea**, informazioaren eta ezagutzaren trukea errazteko, baliabide komunak (besteak beste, arrain-populazioak) kudeatzeko, eta nekazaritzaren bioaniztasuna zaindu eta erabiltzeko. Klima-aldaketak beste izurri eta gaixotasun batzuei bide emango die, eta izurri eta gaixotasun horiek mugetatik harago zabaltzeko arriskua areagotuko du.
- **Finantzazio-fluxu handiagoa ezartzea nekazaritzarentzat**, eraldatzeko beharrezkoa den inbertsioaren kostua ordaintzeko.



ELIKA Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)